



UME ELEBIDUNEN GURASOENTZAKO GIDALIBURUA

“Egunero nire gurasoak miresten ditut elebidun sortu nindutelako. Egin ahal zidaten oparirik onena izan zen. Eta halaber miresten ditut gauza bera lortu izan duten edo lortzen saiatzen diren gurasoak. Elebidunok, ez arduratu beste guztiak arrarotzat hartzen bazaituztete. Zeuen buruaz harro egon zaitezte. Beti horrela ematen ez badu ere, gizaki bereziak gara gu”.

(Bilingual Family Newsletter) 1977



Eskuarteon duzun liburuxka hau 2001ean pedagogia eta elebitasunean adituak diren Alma Flor Ada eta Colin Baker-ek argitaratutako “Ume elebidunen gurasoentzako gida” izenekoaren laburpen librea da. Bere irakurketa erraztearren, “euskara edo hizkuntza gutxitua edo zuen lehen hezkuntza bezala” eta “gaztelania edo hizkuntza nagusia edo zuen bigarren hezkuntza” bezalako adierazpenak erabili izan ditugu. Halaber, interesgarriak iruditu zaizkigun aholkuak atera izan ditugu ondorengo hiru egoerak kontuan hartuz:

- *Seme-alabei euskaraz zuzentzen zaizkien gurasoak..*
- *Seme-alabei gaztelaniaz zuzentzen zaizkien gurasoak.*
- *Seme-alabei euskaraz eta gaztelaniaz zuzentzen zaizkien gurasoak.*

Hizkuntza erreza erabiltzen saiatu gara guztiok uler dezagun, baina azalpenen bat ez ulertzekotan zure seme-alabaren tutorearengana jo ezazu patxada osoz eta zure dudak argitzen saiatuko gara..

ABARRAK EUSKERA ELKARTEA

1.-Zer egin behar dut nire seme-alaba elebiduna izateko eta euskara zein gaztelania menpera dezan?

Lehenengo eta behin kontuan hartu behar duzue bai aita bai ama oso inportanteak zaretela umeak hizkuntza menpera dezan, hau da, lan hori ezin daitekeela bakar baten lepora bota. Ume bat benetan elebiduna izan ahal izateko esperientzia lingüistiko oparoa jaso behar du bi gurasoengandik (*entzun eta hitz egin, irakurri eta idatzi euskaraz zein gaztelaniaz*). Halaber oso inportantea da bere bi hizkuntzen balorazio positiboa izatea, baita ahalik eta ekintza kultural gehienetara hurbiltzea ere (*antzerkia, dantza, jolasak...*). Irakurketarako ohitura ere oso garrantzitsua da elebitasuna ondo garatzeko, batez ere gurasoek hizkuntza bat ezagutzen ez dutenean. Animatu umea asko irakur dezan eta ondoren eskatu irakurritakoa zuei kontatu diezazuen, hau da, hartu parte zuek ere umearen irakurketa prozesuan.

Umeak hizkuntza era errez eta oparoan erabil dezan derrigorrezkoa da berarekin zenbat eta egoera desberdin gehiagotan hitz egitea (*jokoan, etxean, lagunekin...*), hizkuntza bera hitz egiten duten beste pertsonekin erlazionatzea, hizkuntza horretako ipuinak entzutea, bideo eta telebista-programak ikustea... (*kontuz, telebista oso pasiboa da eta denbora eta programa-motak kontrolatu behar dira*).

2.-Bi gurasook euskaldunak gara, zein hizkuntzatan hitz egin behar diogu gure seme-alabari?

Euskara erabiltzen dugun gurasook **arrisku** handi bat daukagu. Euskara hizkuntza gutxitua da eta gaztelania baino indar gutxiagoa dauka. Gure seme-alaba txikiei gaztelaniaz egiten badiegu, umeak azkar konturatuko dira gaztelaniarekin edozein lekutan gehiago erabiltzen dela eta seguruenez gaztelaniara joko dute, baita etxean ere. Jakin behar duzue ere umeek etxeko hizkuntza zenbat eta hobeto dakitenean orduan eta errazago hartuko dutela bigarren hizkuntza, bai gaztelania zein ingelesa zein... Beraz, ahal den guztietan, zuen seme-alabarekin euskaraz. Gainera, ezin ahaztu behar gaztelania gure inguruan itzelezko indarra daukala eta gure seme-alabek errez ikasiko dutela guk ezer berezirik egin gabe.

3.-Guraso bat euskalduna da eta bestea erdalduna. Zein hizkuntzatan egin behar diogu gure seme-alabari?

Erabili behar den estrategia norberak bere hizkuntzan egitea da, hau da, aita euskalduna bada umeari beti euskaraz egingo dio eta ama erdalduna bada beti gaztelaniaz egingo dio, eta biek exijituko diote umeari norberari bere hizkuntzan erantzutea. Honela *elebitasun orekatua* lortu egingo da. Estrategia honek arazoak sortuko ditu (*zein hizkuntzatan egingo dute denak elkarrekin daudenetan?*) eta normalean holakoetan gurasoek errazenera jotzen dute (*gaztelaniaz hitz egiten dute guztiek dakitelako eta arazo gutxiago sortzen delako*). Oso inportantea da puntu honetan gurasoak ados jartzea, eta hona hemen zenbait akordio posible euskara indartu nahi bada:

- Euskara ez dakien aita edo ama euskara ikasten hasiko da familia osoa elkartuta dagoenean euskara erabili ahal izateko.
- Une horietan gaztelaniaz arituko da familia osoa baina aita edo ama euskaldunari umeak euskaraz zuzenduko zaizkio. Kasu honetan derrigorrezkoa da guraso erdaldunak ahalegintxo egitea gutxienez euskaraz zerbait ulertzeko.
- Familia elkartuta dagoenean guztiek gaztelania erabiltzen dute baina momentu horietatik aparte euskalduna den aitari edo amari umea euskaraz zuzenduko zaio.

Ez da ahaztu behar hizkuntzaz aldatzea edo bi hizkuntza tartekatzea ez dela gauza txarra eta bakar bakarrik bi hizkuntzaren jabeek egin dezaketela.

4.-Nire seme-alabari bi hizkuntzatan hitz egin ahal diot (*euskaraz eta erdaraz*) batera?

Umea txikia denean edo bigarren hizkuntza ikasten hasten denean hobe da umeak pertsona bakoitzarekin edo euskaraz edo erdaraz egitea nahasketak ez sortzeko (*posiblea da amak euskaraz eta aitak erdaraz umeari egitea, adibidez, baina ez aitak edo amak bietara egitea*). Honela egin behar da umeak hizkuntza menperatu arte. Prozesu honetan oso normala izaten da umeak pertsona bati euskaraz eta erdaraz batera egitea; umearentzat jolasa bezalakoa da eta adierazi nahi du bi hizkuntzetan dakiela ondo. Honelakoetan gurasoak, maitekiro, gogoratu behar dio berarekin hizkuntza bakarra erabili behar duela (*mesedez, niri euskaraz / erdaraz esadazu...*). Behin umea bi hizkuntzen jabe dela eta bi hizkuntzak aparte mantentzen dakiela (*gaztetan, normalean*), nahiko normala izaten da umeak pertsona berarekin bi hizkuntzak erabiltzea baldin eta pertsona horrek bi hizkuntzak badakizki.

5.-Zein hizkuntza erabili behar dugu euskara ez dakien norbaitekin hitz egiten ari bagara?

Kontuz. Hizkuntza bat gutxitua bada (*euskara, kasu*) umearen aurrean prestigioa hartu behar du berak erabiltzea nahi badugu. Gurasoak umearekin euskaraz erlazionatzen badira eta erdaldun bat datorrenean umeari gaztelaniaz egiten badiote argi dago umearentzat gaztelania euskara baino inportanteagoa, prestigio handiagokoa egiten ari garela, eta seguruenez oso denbora gutxira umeak euskaraz ez du egingo. Honelakoetan gurasoak umeari beti etxeko hizkuntzan zuzendu behar zaizkio eta erdaldunari itzuli egingo diote, beharrezkoa bada jarrera honen arrazoiak emanez. Jokaera hau askoz inportanteagoa da umea txikia denean, zeren eta umea gaztetu orduko elebiduna izango da eta errez pasa daiteke hizkuntza batetik bestera.

6.-Ez dut euskara oso ondo menperatzen. Nire seme-alabekin erabili ahal dut?

Orokorrean, zuk euskaraz ondo ez jakitea zure arazoa da, ez zure umearena. Zergatik ez duzu zuk arazo hori konpontzen euskaltegi batean euskara ikasten?

Hori ez baduzu egiten eta euskara txarto menperatzen baduzu, zure seme-alabarentzat hizkuntzan eredu txarra izan baino lehenago hobe da umeari gaztelaniaz egitea. (*kontuz! Euskaldun zahar askok uste dute eurek dakiten euskara ez dela ona. Gezurra! Euskaldun zaharra bazara hitz egiezu zure seme-alabei zuk darabilzun hizkuntzan, ezelango lotsarik gabe*). Gaztelaniaz hitz egingo badiezu ez ahaztu euskara ere goraiatu behar duzula: agurrak, esaldi errazak, zorionak... sartzen badituzu zure umeek ikusiko dute zuentzako ere euskara hizkuntza garrantzitsua dela. Honekin batera, oso inportantea da ere umeak euskararen kulturaren sartzeari: Olentzero, jaialdietan parte hartuz, euskarazko liburuak irakurtzen... umeek ikus dezaten familian euskal kultura garrantzitsua dela.

7.-Nire seme-alabak bi hizkuntzak nahasten ditu, euskara eta gaztelania. Zer egin behar dut?

Oso normala da, batez ere elebitasunaren hasieran. Askotan umeak ez du hizkuntza bateko hitza ezagutzen eta beste hizkuntzatik hartzen du. Honelakoetan umeari eredu garbia emango diogu ahal den guztietan bereganatu arte:

-umea: pantaloi hauek ez zaizkit gustatzen!

-gurasoak: Oso praka politikak dira. Praka hauek modan daude eta zure lagunek antzeko prakak erabiltzen dituzte.

Gerta liteke ere umeak bi hizkuntzekin jolastu nahi izatea eta bi hizkuntzetako hitzak nahita nahastea zenbat dakien erakusteko. Horrela bada arazorik ez, baina kontuz zeren askotan horrelako gauzak ematen dira umeak euskarari utzi eta gaztelaniari eusten hasten denean.

8.-Nire seme-alaba nerabeak (adoleszentea) gero eta gaztelania gehiago erabiltzen du egunerokotasunean. Zer egin behar dut?

Nerabezaroan eta gaztaroan gurasoak kontrola galtzen hasten dira haien seme-alabek erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan. Gazteek bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, mantenduko badituzte eurek hartutako erabakiagatik izango da gehiago gurasoen erabakiagatik baino. Gurasoek kontuan hartu behar dute gazteak behartzean batzuetan kontrako jarrera hartzera bultzatzen ditugula nahi gabe. Hobe izan daiteke “**lorazain arduratsu**” bezala jokatzea: euskaraz egin dezaten motibatu, euskaraz egiteko aukerak eskaini eta etxean euskaraz egitearen erabakiari tinko eutsi. Ezin da ahaztu batzuetan gazteek hizkuntza bati muzin egiten diotela baina gero nahita berreskuratzen dutela. Estrategia bat izan daiteke gazteei azaltzea zelan gurasoekiko errebeldiagatik euskara ez erabiltzeko hartu duten erabakiak azken batean gaztelania bakarrik erabili nahi dutenen menpeko egiten dituela. Kontraesan honetaz jabeazten ditugunean batzuetan gazteak euren hizkuntzara eta berezko kulturara bueltatzen dira, nahiz eta batzuetan gurasoek erabiltzen duten euskara bera erabili ez, gurasoengandik bereizteko edo.

Gazteek krisialdi hauetan galtzen duten hizkuntza-kopurua gutxitu ahal izateko gurasoek jarraitu ahal dute gazteekin euskaraz egiten, gazteek erdaraz erantzuten badieten arren. Gurasoek “*lorazain arduratsu*” bezala egin dezaketen gauza bakarra gazteei baldintza egokiak eskaintzea baino ez da, geroan erabaki zuzenak hartzeko kapazak izan daitezen: entzun, arrazonatu eta erabaki sendoak hartu etxeko hizkuntza biziarazteko.

9.-Bigarren hizkuntza bat ikasteak, gutxitzen al du lehenengo hizkuntzaren errendimendua?

Hizkuntzak ez dira bata bestearen lepotik elikatzen. Hizkuntzak zein bere aldetik garatzen dira. Bigarren hizkuntza bat ikasteak **ez du lehenengo hizkuntza kaltetzen**, hizkuntzen artean transferentzia ematen delako, hau da, batean ikasten dena aldi berean bestean ere ikasten ari dela.

Dena dela, oso garrantzitsua da ume elebidunak (*euskara eta erdara dakitenak*) elebakarrekin (*erdara bakarrik dakitenak*) ez konparatzea hizkuntzaren garapenari begira, eta konparatu nahi izatekotan elebidunak elebidunekin eta elebakarrak elebakarrekin konparatu beharko lirake. Ume elebidunak, orokorrean, hizkuntza bat bestea baino hobeto menperatzen du eta gainera hizkuntza bakoitza egoera konkretu batzuetan erabiltzen du. Beti horrela ez bada ere, ume elebakarrak hobeto erabiliko du bere hizkuntza ume elebidunak baino, baina elebiduna bi hizkuntza eta bi kulturaren jabe da eta bietan garatu daiteke, eta elebakarra ez.

Ikerketak diotenez, elebidunak gutxienez elebakarrak bezain burutsuak dira inteligentzia-frogetan eta **euren hizkuntza biak ondo garatuta badituzte** emaitza hobeagoak ematen dituzte. Orokorrean erraztasun gehiago agertzen dute arrazonamenduan, pentsatzeko malgutasunean, komunikatzeko gaitasunean, pentsatzeko ahalmenean...

10.-Nire seme-alabak bere hizkuntza biak erdizka ikasiko ditu eta ez bakarrik erabiliko balu bezain ondo?

Ez da zertan horrela izan behar. Umeen ikasteko gaitasunak ez dauka mugarik. Munduko biztanleen bi herenak (2/3ak) elebidunak dira eta arazo hori ez da sumatu. Baliteke ume elebidunak hizkuntza batean ume elebakarrak baino hiztegi pobregoa agertzea, baina bi hizkuntzetan darabilen hiztegia elebakarrarena baino aberatsagoa izango da. Baliteke ere zenbait momentutan ume elebidunak elebakarrak baino atzeratuago ematea hizkuntzan, baina atzerapen horiek normalean puntualak izaten dira. Arriskurik handiena da gurasoek, umea eskolan hobeto joatearren edo, etxeko hizkuntza baztertzea erabakitzen dutenean. Holakoetan bai, posiblea da umeak ez lortzea bi hizkuntzatan aurrerapen nahikorik.

11.-Nire seme-alaba eskolan txarto dabil. Euskaraz ikasten duelako al da?

Orokorrean, ume batek hizkuntza bat ikasteko behar duen denborak ez dauka zerikusirik ume horrek ikasketak ondu burutzearekin ala ez. Ikerketa batzuk diotenez, ezin zaio elebitasunari umeen eskola-porrota eragotzi ezta sentimendu edo jarrera-arazorik ere. Elebitasuna izan daiteke eskola-porrotaren arrazoia, bai, baina bakarrik umea eskolara hizkuntzak ondo garatu gabe sartzen bada. Honen inguruan, ezin dugu ahaztu umeek erraz ikasiko dituztela hizkuntza biak baldin eta giro baikorrean bizi badira eta bi hizkuntzak praktikatzeko aukera ematen bazaie.

12.-Nire seme-alabei eskolako etxerako lanak egiten lagundu nahi diet, baina euskaraz ez dakit. Ikasiko nuke, baina mundu osoak daki hizkuntza berri bat ikasteko nagusioi umei baino askoz gehiago kostatzen zaigula.

Hizkuntzak ikasterakoan ume txikiek helduek baino erraztasun gehiago dutela pentsatzea okerra da. Egia da ume txikiek hizkuntza berriaren ahoskera errazago hartzen dutela, baina gazteek eta helduek, pentsatzeko duten ahalmenagatik, azkarrago ikasten dute ume txikiek baino. Beraz, zure seme-alabari ikasketetan lagundu nahi izan ezker oso gomendagarria litzateke zuk euskara ikastea. Ikasi ezingo bazenu, zure seme-alabak etxerako lanak euskaratik erdarara itzuli ahal dizkizu eta zuk erdaraz lagundu. (*ikus 13. atala*).

13.-Nire seme-alabak elebidunak dira. Noiz izango dira kapaz hizkuntza batetik bestera itzultzeko?

Normalean eta bi hizkuntzak nahiko ondo erabiltzen baditu, hiruzpalau urteko umea kapaza izaten da hitzak edota esaldi laburrak hizkuntza batetik bestera itzultzeko. Umeek gurasoei hizkuntza batetik bestera itzultzeak badauka oso alde ona, umeak inportante sentitzen baitira gurasoen aurrean eta, halaber, guraso eta seme-alaben arteko harremanak sendotzen dira. Baina itzultzeak badauka ere bere alde txarra, umearentzat esfortzu handia suposa dezakeelako. Beraz, gurasoek beti baloratu beharko dute esfortzu horrek umea nekarazten duen ala ez eta horren arabera jokatu.

14.-Zentzuduna al da nire seme-alaba hiru hizkuntzaren jabe egitea?

Eleaniztasuna oso arrunta eta naturala da. Eleaniztasuna lortzeko bideetako bat gurasoek seme-alabari etxean bi hizkuntzatan hitz egin eta umeak eskolan hirugarren hizkuntza batez ikastea da. Kontuan hartzeko puntu bakarra da hiru hizkuntzetatik bat gutxienez sakon landu behar dela, hau da, gutxienez hiru hizkuntzetako batean umeak bere adinari dagokion mailan jakin behar duela.

15.-Nire seme-alabak badauka diagnostikatutako arazo bat (adibidez: ikasteko zailtasunak, hizkuntzarekin arazoak, sentimendu-arazoak...). Hizkuntza bakar batean hitz egin behar diogu?

Etxean bi hizkuntza erabiltzeak ez dauka zerikusirik umeak hizkuntza-arazoak edo ikasteko arazoak izatearekin. Ume elebidunek horrelako arazoak izan ditzakete, bai, baina elebitasuna ez da horren arrazoia. 5 edo 20 umetako batek hizkuntza-arazo arinak izaten ditu eta normalean ezer berezirik egin gabe edo espezialisten laguntzaz zuzentzen dira. Badira guraso, irakasle eta espezialista asko hizkuntza-arazoak agertzen dituen umearen gurasoei etxeko hizkuntza, **hizkuntza gutxitua** (euskara zuen kasuan), baztertzea aholkatzen dietenak. Erabaki honek arazo larriak sor ditzake umearengan, segurtasun falta nabaritu dezakeelako. Askoz inportanteagoa da etxean beti erabili den hizkuntza sendotzea umeari konfiantza emateko. Etxean euskara eta erdara batera erabili izan badira eta umeak hizkuntza-arazoak baldin baditu, inoiz egin daiteke hizkuntza bakarrera pasatu (*umeak hobeto menperatzen duena*) umeak hizkuntza bat ondo garatzeko, baina gerora bi hizkuntzetara pasa daiteke berriro. Honelako erabakia hartu baino lehen, kontuan hartu urrats hauek:

- Ez bota errua elebitasunari, ez baita erraza bera umearen arazoaren sortzaile izatea.
- Hitz egizue arazo bera izan duten beste guraso batzuekin.
- Galdetu espezialistei, baina informa zaitezte ea elebitasun-arazoetan esperientziadunak diren.
- Hizkuntza bakarrean egiteko aukera hartzen baduzue, etxeko hizkuntza hautatu eta ez hartu behin-betiko erabakia lez. Ahal baduzue, geroan bi hizkuntzetara berriro pasatu.
- Kontuz ibili baztertutako hizkuntza umearen buruan sentimendu negatiboekin erlazionatuta ez gelditzeko.

16.-Nire seme-alaba totela (tartamutua) da. Elebitasunagatik izan daiteke?

Ume txiki askok 3-4 urteko adinarekin toteltze-arazoak izaten dituzte baina oso azkar zuzentzen dira. Toteltasuna ikasi duten adituek ez diote elebitasunari errua botatzen. Egia da ume batzuk bi hizkuntza ikasten hastean total-arazoak agertzen dituztela gehiegizko informazioa erabiltzeagatik, baina bi hizkuntzak menperatzen joan ahala arazo horiek desagertu egiten dira. Umetan total-arazoak oso normalak dira, berdin umeak hizkuntza bakar bat erabili zein bi edo hiru erabili. Normalean arazo hauek berez konpontzen dira espezialistengana jo gabe. Arazoa konpontzeko nahikoa izaten da umea ez estutzea eta hitz egiteko behar duen denbora ematea. Beraz, umea lasaitu eta ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu, umea animatuz. Dena dela, arazoa konponduko ez balitz espezialista batengana jo beharko litzateke, baina beti ahaztu gabe bi hizkuntzetatik batera pasatzea ez dela konponbidea eta gainera batzuetan umearengan nahasmen gehiago sor dezakegula zeren eta berak pentsa dezake hizkuntza bakar batean egiten duzuela bera totela delako, eta orduan bere arazoaren kontzienteago egiten dugu umea.

17.-Irakurketa-prozesua, zein hizkuntzatan ikasi behar dute lehenengoz?

Irakurtzen jaiotegunetik aurrera ikasten da. Entzutea eta hitz egitea irakurketarako hastapenak dira. Gurasoek umeari irakurtzen lagundu ahal diote umeak letra bat bera ere jakin barik: ipuinak irakurriz, jolasteko liburuak emanez... Gurasoek jakin beharrekoa zera da, **bigarren hizkuntza batean irakurtzeak lehenengo hizkuntzaren irakurtze-prozesuan duela oinarri**, hau da, **hizkuntza batean irakurtzen jakiteak asko erraztuko duela bigarren hizkuntzan irakurtzea**. Umeak ez du birritan irakurtzen ikasi behar, hizkuntza batetik bestera transferentzia handia dagoelako. Gainera, bigarren hizkuntzan irakurtzeak asko laguntzen dio hizkuntza hori ikasteari, are gehiago hizkuntza hori gutxitua denean eta umeak praktikatzeko aukera gutxi duenetan.

18.-Nire seme-alabak dakizkien bi hizkuntzak desberdin idazten badira, horrek ez dio arazorik sortuko idazten eta irakurtzen ikasterakoan?

Umeak ez du zertan arazorik izan behar bi euskaraz eta erdaraz ondo idazten ikasteko. Bi hizkuntzetako idazkerak berdinak dira, ortografia-arau batzuk salbu, eta praktikarekin arazo horiek erraz zuzenduko dira umeak nahiko irakurri eta idazten badu.

19.-Noiz hasi behar du umeak bigarren hizkuntzan irakurtzen?

Etxean bi hizkuntzak erabiltzen badira umeak bi hizkuntzetan batera irakur dezake, normalean 4-6 urterekin. Etxean hizkuntza bakarra erabiltzen bada, hobeto izaten da etxeko hizkuntzan irakurtzen hastea gurasoek umearekin parte hartzeko. Dena dela, gogoratu inportanteena izaten dela irakurketa bera umearen gustuko ekintza izatea..

Eskolan irakurketa zein hizkuntzatan egin behar denari buruz, eskolak aukeratutako elebitasun-ereduaren menpe dago. Orokorrean, irakurketa hizkuntza batean zein bestean, edo bietan batera eman daiteke arazorik gabe. Inportanteena irakurtzea da, eta gogoratu zenbat eta gehiago irakurri orduan eta hobeto idatziko dutela.